

Euskal alderdien jarrera eta balorazioa Ekonomia Itunari buruz

Posición y valoración de los partidos vascos sobre el Concierto Económico

Position and assessment of the Basque parties on the Basque Economic Agreement

Murua Imaz, Xabier.

UPV/EHU

xabier.murua@ehu.eus

Jaso: 2022.04.13

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2022), 46; 241-280]

Onartu: 2022.05.19

Ekonomia Ituna da Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoen artean adostasun handiena sortzen duen euskal autogobernuaren zutabeetako bat. Artikulu honen helburua da Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdien iritzia eta jarrera aztertzea XI. legegintzaldian (2016-2020). Horrela, Ekonomia Itunaren inguruan euskal alderdien sistemaren dauden konbergentzia- eta dibergentzia-ardatzak aztertzen dira, ETArekin jarduera armatua amaitu osteko testuinguru batean. Ikerketa garatzeko inkesta bat egin da eta elkarrizketak egin dira Eusko Legebiltzarreko alderdi guztietako ordezkariekin.

Hitz gakoak: Euskadi; Eusko Legebiltzarra; Ekonomia Ituna; iritzi publikoa; politika.

El Concierto Económico es uno de los pilares del autogobierno vasco que mayor consenso suscita entre los partidos políticos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El objetivo de este artículo es analizar la opinión y posicionamiento de los partidos con representación en el Parlamento Vasco durante la XI legislatura (2016-2020). De este modo, se estudian los ejes de convergencia y divergencia existentes dentro del sistema de partidos vasco al respecto del Concierto Económico en un contexto post-cese de la actividad armada de ETA. Para desarrollar la investigación se ha elaborado una encuesta y se han realizado una serie de entrevistas con representantes de todos los partidos del arco parlamentario vasco.

Palabras clave: País Vasco; Parlamento Vasco; Concierto Económico; opinión pública; política.

The Basque Economic Agreement is one of the pillars of Basque self-government that arouses the greatest consensus among the political parties of the Basque Country. The aim of this article is to analyse the opinion and position of the parties represented in the Basque Parliament during the 11th legislature (2016-2020). In this way, the axes of convergence and divergence existing within the Basque party system with regard to the Basque Economic Agreement in a context after the cessation of ETA's armed activity are studied. In order to carry out the research, a survey has been carried out and a series of interviews have been conducted with representatives of all the parties of the Basque parliamentary arc.

Keywords: Basque Country; Basque Parliament; Basque Economic Agreement; public opinion; politics.

1. SARRERA

Ekonomia Ituna 1878tik indarrean dagoen finantzazio-sistema da. Izaera asimetrikoa duen Ekonomia Itunak, federalismo fiskalaren eredu berezia eratzen du nazioartean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoei duten botere fiskal eta finantzario zabalagatik. Foru-ogasunek ogasun integral gisa funtzionatzen dute, eta Europan botere fiskal eta finantzario handiena duten estatu-azpiko erakundeen artean daude. Nazioarteko federalismo fiskalaren esparruan lehen mailako interes akademikoa izateaz gain, Ekonomia Ituna euskal autogobernu-sistemaren zutabe nagusietako bat da gaur egun.


Gaiak daukan garrantzia eta gaurkotasuna kontuan izanda, iritzi publikoan eta eztabaida politikoan izan duen oihartzunaren gaineko hainbat ikerketa egin dira orain arte: La opinión pública española sobre el concierto económico vasco (1876-1937) (González Iglesias, et al 2001), La opinión pública española sobre el concierto económico vasco (1952-2002) (Ensunza Arrien 2005) edota Conocimiento y opinión del alumnado de la UPV/EHU sobre el Concierto Económico (Erkoreka González et al. 2022). Ikerketa lerro honi jarraipena emanez, artikulu honen helburua, XI. legegaldian Eusko Legebiltzarrean ordezkari zuten alderdi politikoek Itunaren gainean zuten iritzia, jarrera, posizionamendua eta baloraketa aztertzea eta amankomunean jartzea da.

Ikerketa aurrera eramateko, Ekonomia Itunaren gaineko inkesta bat osatu zen lau zatitan banatua. Lehen atalean Itunaren bilakaera historikoa eta egungo onarpenaren inguruko balorazioa eskatu zen kontuan izanda hasiera batean alde edota kontra egon zitezkeen alderdien ikuspuntua aldatu daitekeela. Bigarren atalean egun eztabaidatu den Kupoaren inguruan eta honen egozpen-indizearen iritzia jakin izan nahi zen. Hirugarren atalean, Ekonomia Itunak zergak zehazteko eta biltzeko ahaidetzen duen eskumenean inguruko ikuspuntua eskatu zitzaion. Azkenik, laugarren atalean, Itunaren gaur egungo egoera eta zer etorkizun izango duenarengatik galdetu zitzaion.

Inkesta horretan oinarrituz, 2019an Eusko Legebiltzarreko alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat elkarrizketatu zen presentzialki 2019ko otsaila eta maiatza artean. Legebiltzarreko Ekonomia batzordekide eta Ekonomia Ituna inguruan ezagutza zuten legebiltzarkideak izan ziren elkarrizketatuak. Galdeketa guztiak presentzialak eta grabatuak izateko baimenarekin egin ziren, PSE-EEko galdeketa ezik emailaz erantzundako galderak izan zirela. Inkesta transkribapenak eranskinetan aurkitu daitezke. Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ-PNV) 28 legebiltzarkide zituen, eta Joseba Egibar izan zen elkarrizketatua; EH Bilduk 18 legebiltzarkide zituen, eta Leire Pinedo izan zen elkarrizketatua; Elkarrekin Podemos 11 legebiltzarkide zituen, eta Julen Bollain izan zen elkarrizketatua; Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerrak (PSE-EE) 9 legebiltzarkide zituen, eta Alexia Castelo izan zen elkarrizketatua; eta azkenik,

Partido Popularrak (PP) 9 legebiltzarkide zituen, eta Anton Damborenena izan zen elkarriketatua.

2019ko Eusko Legebiltzarra



Iturria: Eusko Legebiltzarra, 2019.

2. BILAKAERA ETA BALORAZIOA

1878an ezarri zen lehen Ekonomia Ituna Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. 1937an Francok Ekonomia Ituna indargabetu zuen Bizkaia eta Gipuzkoan, baina Araba eta Nafarroan mantendu egin zituen. Modu honetan Ekonomia Itunaren lehen indarraldi aroari amaiera eman zitzaion (Alonso Olea 1995). Berrogei urteko diktadura frankistaren ondoren, 1979ko Gernikako Autonomia Estatutua eta 1981eko Ekonomia Itunaren legea oinarri dituen euskal autogobernu sistema berrezarria gelditu zen, itunpeko sistemak berriro ere hiru lurralde historikoak baneratu zituelarik.

EAJren iritziz, 1878ko Ekonomia Ituna negoziatzeko arrazoi nagusiak, arrazoi politikoak izan ziren arrazoi ekonomikoen gainetik; honek ez du esan nahi, arrazoi tekniko eta ekonomikoek ez zutela bere garrantzia, baina planteamendu nagusia politikoa izan zen. XIX. mendean “foru ona”-ren teoria zabaldua zegoen (Pérez Núñez 1994). Foru ona izateko, foru horrek ez zuen funts politikorik izan behar, baina aldi berean garaiko gizarteko elite ekonomikoentzat onuragarria izan behar zen atal ekonomikoan. Euskal eliteek begi onekin ikusi zuten eta horregatik ondo ezarri zen euskal gizartean. Cánovas de Castillork zuen asmo sakonena foralitate kontzeptu zuen edozer ezabatzea zen estatu bakar eta unitario bat sortzearen (Cajal Valero y Castells Arteché 2005). EAJren ustez hau ez zen guztiz gauzatu, zeren eta foruak deuseztatu bazituen ere, autogobernu ekonomiko eta fiskala mantendu ziren. Lurralde historikoetan zerga sistema bat ezartzeko gaitasunik ez zuenez, Ekonomia Ituna ezarri zuen. EAJren irakurketa da, ezin dela autogobernu politikoa egon autogobernu ekonomiko bat gabe, baina bai egon daitekeela autogobernu ekonomiko autogobernu politikorik gabe.

PSE-EEren ustez paradoxikoa da nola 1878ko errege-dekretuak lurralde foralak, Ekonomia Itunaren bidez, Espainiara gehitzen zituen modu behin-

behineko batean, eta hau nola bilakatu den Euskadiren ezaugarri nagusietako bat. PSE-EErentzako esanguratsua da beharrez ezarritako sistema bat hasiera batean kritikatu izan zena, orain kritika egiten zuten horien aldarrikapen nagusia dela. XIX eta XX mende hasieran Ekonomia Ituna ezaugarri foralaren hiltzaile bezala ikusten zutenek (De La Granja Sainz 2004), alderdi abertzaleak gehienbat, EAJ eta ANV nagusiki, orain Ituna subiranotasunaren alde egiten duela diotenak direla diote.

PPren hitzetan, Cánovas del Castillo bere gobernu liberala sortzen ari zenean, Espainiako herritar guztiek zerga berdina ordaintzea bilatzen ari zen eta hau leku guztietan gertatu zen euskal lurraldeetan izan ezik. Damboreneak dio hemen planteatu zela Ekonomia Ituna, alde batetik Foruak kendu zirelako, baina beste alde batetik lehen zegoen egoera fiskala mantendu zelako. Sistema berri honek ondo funtzionatu zuen bi aldeentzat, eta horregatik mantendu egin zela baiesten du PPK. Alde batetik hiru euskal diputatuk hala babestu zutelako Madrilan eta bestetik Estatuari sistema hau ondo etortzen zitzaiolako (Orueta Pérez de Nenin 1934).

EAJren hitzetan, araugintzaren aurreramenduek ez dute ahantzarazi behar Ekonomia Itunaren beste alderdi askok oraindik badira utelaren alde bikotasunaren ondorioak pairatzen bai modu zuzenean zein zeharkakoan. EAJk dio gaurko Ekonomia Itunak baduela erakunde finantza- ahalmena eta alde bikoa dela, baina hasiak direla hauskortasun ezaugarri batzuk. Egibarren hitzetan, “orain arteko ongizate maila lortzeko, beharrezkoa izan da lurraldean ekonomia indartsu bat izatea, baina politika publikoen ikuspegitik, Ekonomia Ituna ezinbestekoa bilakatu da: alde batetik, aukera eman duelako propioak diren politika ekonomiko eta fiskalak egiteko, eta bestalde, ereduak gestio publikoan ezartzen duen eskaeragatik. Sarreraren gestioa, zerga bitartez, Eusko Jaurlaritzaren esku jartzen du, baina baita gastuaren gestio eta diziplina ere. Bi hauen arteko oreka bilatzea ezinbestekoa eginez”.

EH Bilduren ustetan, Gernikako Estatuaren onarpena Euskadiren burujabetzarako nolabaiteko aurrerapauso bat izan zen. Pinedok dio 1979ko eta gaur egungo egoera sozial eta politiko desberdinak kontuan izanda, Itunarekiko egon zen jarrera ezin dela egungo jarrerarekin baloratu. EH Bilduren ustez, Ekonomia Itunak azken ia 40 urteetan izan duen bilakaeran gauzatu den egoera garrantzitsuenetako bat, Itunaren epemuga kentzearena izan da. Zenbait alderdik Ituna *status quo*a mantentzeko erailtzen dutela (Ormazabal 2015) eta Ekonomia Itunaren aukera guztiak oraindik garatuak izan ez direla salatzen du. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoak ezin du bere zorpetze maila nahi duen moduan ezarri, Estatuak erkidego autonomoetako zorpetze maila erabakitzen duelako. EH Bilduren hitzetan, Euskadik ezin du Estatuak beste autonomia batzuen zorpetze maila berdina izan errealitate ekonomikoa eta gaitasunak desberdinak direlako. EH Bilduk Legebiltzarrean behin eta berri esan du Euskadiko zorpetze maila ez dela txikia (La Vanguardia 2020),

baina beste autonomia erkidego batzuekin konparatzen baldin bada askoz ere kontrolatuagoa daukala. Pinedoren ustez, ez du zentzurik Eusko Jaurlaritzak bere zergak kudeatzeko aukera izatea eta hainbat zergetan eskumenak izatea hauek definitzeko, hau da, diru iturriak definitzeko, baina Eusko Jaurlaritzak gastuak egin behar dituenean Euskadin Estatuak mugak ezartzea. EH Bilduk dio Ekonomia Ituna tresna bat izaten ari dela autonomia fiskal eta finantzarioan, baina soilik tresna moduan hartu behar dela kontuan eta ez epemuga bezala.

Podemos eta PSE-EEK diote ez dagoela zalantzarik Ekonomia Itunak ahalbidetzen duen finantzazio mota honek euskal gizarteren garapenean lagundu duela azken hamarkadetan.

3. KUPOA

Kupoaren definizioa modu honetan jasotzen du Ekonomia Itunaren 49. artikulua: *“Euskadik Estatuari egindako ekarpena kupo orokor bat izango da, eta kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskadiko Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen estatuaren karga guztiei dagokien kontribuzioa da kupo jasotzen du”* (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa 2008). Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Ogasunek bildutako zergen bidez finantzatzen da ordainketa Estatuari. Kupoaren zenbatekoa kalkulatzeko metodologia bost urteko legeen bitartez eguneratzen da. 1981eko Ekonomia Itunaren lehen Kupo 1982an zehaztu zen eta honen kalkulurako egozpen-indize bat ezarri zen: % 6,24. Indize berriarekin, ordura arte zegoen Kupo kalkulatzeko metodologia guztiz berri zen, eta sistema moderno eta justuago bat ezarri zen (Uriarte Santamarina 2014). Indize hau EAEK Espainiar ekonomian zuen pisuan oinarritu zen eta gaur egun arte aldaezin mantendu da. Egozpen-indizea ondo kalkulatu dagoen jakin nahi da, aldaketarik egin behar den, eta egitekotan zer aldatu behar denekin batera.

EH Bilduren aburuz, EAE eta Espainiar BPGa aztertzean, EAEK duen pisu erreala egozpen- indizearekin bat ez datorrela antzeman daiteke. Gainera, Estatu mailan ez liratekeela eroso sentituko indize zuzena eztabaidatzeko orduan, honekin batera beste eztabaida batzuk irekiko zirelakoan dio. Euskal agintariak aldaerak egin dituzte Kupoaren kantitatea handiegia denaren alde (Urkullu Renteria 2017), baina eztabaida hori egitean ez du jarraipenik batez ere aurrera eramateak sortzen duen konplexutasunagatik. EH Bilduk zer indize hautatzeak zailtasun handiak dakarrela dio zeren eta Kupoaren kantitatea Estatuaren aurrekontuen araberakoa baita eta ez du zerikusirik euskal gizartearen egoera ekonomikoarekin.

EH Bilduren irakurketari Podemosek gehitzen dio ekonomia aldatzen den heinean gizartearen errealitateak aldatzen doazela. Honekin esan nahi dena da 1982an ezarritako indizea egoera konkretu batean erabaki zela, baina 40

urteren ostean egoera desberdin bat dela eta indize aldaketarik ez dela egon. Berrikuspen baten alde agertzen da EH Bildurekin batera.

PSE-EEK egozpen-indize hau ez aldatu izanaren faktore nagusia politiko izan dela dio teknikoaren gainetik.

PP kritikoa agertzen da irizpidearen kontra, eta 1982ko egozpen-indizea oker kalkulatu zela diote. Alderdi batzuetan, % 6,24-ko indizea Estatuaren alde eta beste batzuetan Euskal administrazioaren alde jokatzeko duela ezartzen dute, betiere bien arteko galdu-irabazi erlazioa sinbiotikoa ezarri.

Azken Kupoaren zenbatekoa 2017an (1.300 milioi euro) negoziatu zen. EAJk azken Kupoari buruzko iritzia positiboa dauka ikuspegi kuantitatibotik, arazoizko kopuruan finkatu zelako 2017ko Kupo, aurreko urteetan izandako irizpide-desberdintasunak adostea lortu eta gero. EAJren ustez zenbateko horrek gaitasuna ematen dio EAERI bere gain hartu dituen eskumenak finantzatzeko. Ikuspegi kualitatibotik aldiz, Kupoaren akordioak euskal erakundeei (Eusko Jaurlaritzari, Aldundiei eta udalei) beren aurrekontuak osatzerakoan bost urterako egonkortasuna ematen diola dio.

EH Bilduren ustez espainiar politikariek Ekonomia Ituna eta batez ere Kupoarekiko duten jarrera ez da egokia. Kupoaren negoziatioan dagoen gardentasun falta saltzen du (Gonzalez Egaña 2017), indarrean dagoen gobernu gehiengo izateko bozkak behar dituenen soilik negoziatzen dela salatuz (Erkoreka Gonzalez 2018). Negoziazioen garaietan, Estatutuak bere baitan dituen transferentziak sartzen dira, negoziatioak zailduz. Kupo eta transferentziak bakoitza bere aldetik negoziatu behar dira mantentzen du EH Bilduk.

Podemosek ondo ikusten du Kupo eta haren zenbatekoa. Bi gobernuen arteko akordio bitartez lortutako baliabide ekonomiko ona dela dio alde biko arkodion oinarritzen delako. Arazoa bosturteko sinatzeko moduan dagoela diote.

PSE-EE bat dator EH Bilduren hausnarketarekin. Bere iritziz, Kupoaren arazo nagusia da garrantzi handiagoa ematen zaiola alde politikoari ekonomikoari baino. Arazo hau Euskadi eta Gobernu zentralaren arteko negoziaketa instituzionaletan ohikoa dela dio. EH Bildu eta Podemosekin bat eginez, Kupoaren negoziatio soilok interes politikoetan datzala dio eta Espainiako parlamentuan gehiengo behar denean soilik negoziatzen dela salatzen dute.

PP kritikoa agertzen da Eusko Jaurlaritzak negoziatutako zenbateko eta moduekin (El Plural 2017). Damborenearen hitzetan "Diputatuen Kongresuan lehen aldiz abstenitu ginen Kupoaren Legearen inguruan. Hau Zapatero eta Ibarretxeren garaietan eman zen. Hurrengo urtean Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak alde bakoitzeko zenbateko batzuk deskontatu zituen". Ekintza hau Ekonomia Itunaren aurka joan zela salatzen du (Mata 2017),

eta horren ondorioz PP eta EAJk negoziazio berriei ekin ziotela, eta hurrengo urtetako negoziaketetan arazorik ez egoteko oinarriak zehaztu zituztela dio.

Laburbilduz, azken Kupoaren negoziaketaren inguruan EAJ, alde kualitatibo eta kuantitatibotik, eta Podemos dira alde agertzen diren bi alderdi nagusiak. Hala ere, Podemosek bosturtekoa sinatzeko modua salatzen du, honi EH Bildu eta PSE-EE gehituz. PP da kritikoen agertzen den alderdia Kupoaren inguruan EAJren ekintzak salatuz.

4. ZERGA-SISTEMA

Ekonomia Itunaren beste ezaugarri nagusietako bat lurralde historikoetako Foru Ogasunek zergak arautu eta biltzeko duten eskumena da. Zerga nagusien araugintza Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusi bakoitzaren baitan dihardu. Bakoitzak bere arau propioak ezarri ditzake PFEZ, Ondasun, Sozietateak, Ondorengotza eta Dohaintzetan esaterako. Karga motak, zergadunen gaineko kenkariak edo libre geratzen diren errentak finkatzen dituzte. Hau guztia Estatuko araugintzak esan dezakeenetik kanpo geratzen da, betiere Ekonomia Itunak duen harmonizazio printzipioari jarraituz. Aldundiek zenbaitetarainoko autonomia izan behar duten galdetu zitzaaien alderdiei.

EAJren hitzetan, zerga berri bat sortzen bada, Ekonomia Itunak zerga berri hori hitzartzeko betebeharra duela aurreikusten du. Beraz, EAJrentzat ez da hainbeste zerga gehiago hitzartu ala ez, baizik eta hitzartuta dauden zerga horien guztien artean, araugintza eskumena hitzartu ala ez. Gaur egun zerga zuzenetan araugintzarako eskumen zabalak dituzte lurralde historikoeak. Zeharkako zergetan, ordea, araugintza eskumenak murriztuagoak dira. Araugintza eskumen horiek hitzartzea autonomiaren aldeko aurrera pausu handia izango litzateke Egibarrentzat. Honekin batera, autonomia edo burujabetza finantzario eta fiskala aldarrikatzen den moduan, zerga guztiak lurralde historikoen eskuetan izan beharko liriatekeela dio.

EH Bilduk beste zerga eredu bat aldarrikatzen du, uste duelako badagoela bidea zerga eredu sozial eta progresiboago bat egiteko, betiere EAEn beharrei erantzuteko.

Podemosen aburuz, Estatuarekin hitzartuak dauden zergak zertarako nahi diren jakin behar da lehenengo. Bi aukera daude zergen kudeaketan, lehenengoa, Eusko Jaurlearitzak botere gehiago izateko, eta bigarrena, autogobernuan sakondu eta biztanleriaren bizitza hobetzeko. Autogobernuan sakontzea onuragarria dela eta falta diren eskumenak ere transferitu egin behar direla diote. Podemosen ustez eskumenak ez dira botere politiko handiago bat izateko erabili behar, biztanleriaren egunerokotasuna hobetzeko bazik. Podemosek ez du arazorik transferentziak kudeatu eta EAEk diru sarrera

gehiago izateko, baina nahi den sistema finkatzea oinarrizkoa dela baiesten du.

Estatuarekiko harmonizazio fiskalaren harira, Sozietateen Gaineko Zergen kasua izan daiteke esanguratsuenetakoa, Oinordetza eta Ondare zergarekin batera. Komunikabide eta alderdien nazionalen aldetik Euskadiko presio fiskala txikiagoa dela salatu izan da (Esteban 2019).

EAJren aldetik EAE Europako ekonomian integratuta dagoenez, antzeko parametro fiskala erabiltzen direla baieztatzen du salaketa horien aurrean. Merkatuaren eta ekonomiaren logikatik ezingo litzateke ulertu goitik beherako desberdintasunak dituzten ereduak aplikatzea eranstean du. Bestalde, Ekonomia Itunean jasota dago zerga-araudia sortzeko orduan ezarri behar den presio fiskala eta Estatuan dagoenaren parekoa izan behar dela dio.

EH Bildu eta PSE-EEren aburuz agerikoa da Euskadiren egoera ekonomiko eta soziala estatuarenarekiko desberdinak direla, eta horren ondorioz ehun ekonomikoa ere bai. Biek bat egiten dute baieztatuz eraiki nahi duten herriarentzako zergak behar direla, eta horretarako, presio fiskal desberdina izatea oinarrizkoa dela. PSE-EEK, Europar Batasunean harmonizazio fiskalari dagokion joerak ez duela zertan bateraezina izan Euskadin egiten diren zerga hitzarmenekin gehitzen du bere diskurtsora. EAJrekin bat egiten dute gobernuetatik garrantzitsua dela ondo kudeatzea eta iraunkorrak izatea diruaren gestioarekin.

Podemos ordea, kritiko agertzen da zergen kudeaketaren inguruan. 2016an Sozietateen Gaineko Zergak % 12 izatetik % 7ra pasatzea gertatu zen. Euskal sistema fiskala erregresiboa ez bada, oso progresiboa ere ez dela salatzen du eta hainbat zergetan presio fiskala igotzea beharrezkoa litzatekeela dio Bollainek. Podemosek erreforma fiskal bat proposatu zuen 2017an (Gara 2017) eta EH Bildu erreforma honen alde agertu zen. Bollainen hitzetan “gauza sinple batzuk eskatu genituen: Sozietateen Gaineko Zergen kenkariak kentzea edota PFEZan diru gehien ordaintzen zuten pertsonen presioa igotzea”.

PPk nabarmentzen du 2000 eta 2005 artean Euskadiko presio fiskala txikiagoa zela Espainiakoarekin alderatuz. Are eta gehiago, PFEZ gutxiago ordaintzen zela, eta Ondasun eta Ondorengotza bezalako zergetan ez zela ezer ordaintzen dio, baina egun egoera hori aldatu dela.

Horrenbestez, presio fiskalaren inguruan EAJk argi du Ekonomia Ituna Europar Batasunaren irizpideekin bat etorri behar dela, eta horregatik Estatuarekiko desberdintasun handiak egotea ezinezkoa dela. EH Bildu eta PSE-EE bat egiten dute euskal eta espainiar errealitateak alderatuz eta zerga autonomia izatea beharrezkoa dela baiesten. Podemosek zerga arloan erreforma bat egitea beharrezkoa dela ikusten du. PP Espainia mailatik eratorriko aldarrikapenekin bat dator EAEn presio fiskala txikiago izan zela zehaztuz.

5. EGOERA ETA ETORKIZUNA

Ekonomia Itunaren ezarpenetik, euskal zerga-sistema presente egon da eztabaida politikoa eta iritziz publikoan. Bai Kupoaren zenbatekoagatik, bai zerga-sistema propioa izateagatik edota Estatuako beste probintziekiko “pribilegio” (Europa Press 2017) bat bezala aintzakotzat hartzeagatik. Horren adibide dira, 2019ko apirilko Espainiako hauteskunde orokorren ostean Parlamentuen zeuden alderdi batzuen jarrera. Ciudadanos eta VOX-ek (Muro y Alonso 2019) Ekonomia Ituna kentzeko ideia bultzatu zuten, eta Espainia mailako PPko hainbat kide (Muro y Alonso 2019) ere kritiko agertu ziren Itunaren aurka. Pribilegio bat den inguruan ondorengoa diote alderdi desberdinek.

EAJk dio Ituna onartzeak arrisku handi bat suposatzen duela eta erantzukizun handiz kudeatu behar direla finantza publikoak. Izan ere, Ekonomia Itunaren ezaugarri nagusia aldebakarreko arriskua da. Hau da, Eusko Jaurlaritzak adostutako Kupoaren zenbateko ordaindu behar dio Estatuari Foru Ogasunen zergen bilketa edota Euskadiren egoera sozioekonomikoa edozein delarik. EAJren aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoak bere zerga sistema Estatuak baino hobeto kudeatzen badu (zerga iruzurraren kontrako neurri eraginkorragoak hartuz, zerga kontzientzia herritarren artean zabalduz, kudeaketa zorrotzagoa eginez), hortik datozen onurak Euskadik ez ditu Estatuarekin edota beste erkidego autonomoekin partekatu beharko; baina aldiz, zerga-sistemaren emaitza EAEn Estatuan baino okerragoa baldin bada, (adibidez, krisi ekonomiko latz batek bereziki kaltetzen dituelako EAEko enpresak), hortik datozen kalteak ere beren gain hartu beharko dituzte euskal erakundeek, Estatuak ez baitu kalte horiek konpentsatu.

Beste alde batetik, EH Bilduk nabarmentzen du ezin dela pribilegio bat izan gerra bat galdu ostean sortutako tresna finantzario bat delako. Harentzako Itunak eboluzio bat izan duela argia da, eta bai nabarmentzen du urteetan zehar aldatu dela, baina funtsean inposizio batetik duela jatorria. EH Bildurentzat herri moduan euskaldunek duten eskubide bat da eta horrela aldarrikatu behar dela defendatzen du. EAJk esandakoaren harira bat egiten du ere EH Bilduk, Kupoaren zenbatekoak ez daukala inongo erlaziorik EAEko egoera ekonomikoarekin, Foru Ogasunek bildutako zergekin, edota Euskadin gertatu daitezkeen ezbeharrekin. Podemosek ere aldebakarreko arriskua azpimarratzen du aurreko alderdiek esan dutenarekin bat eginez.

PP da beste alderdiengatik gehien aldentzen dena. Haienzat ez da pribilegioa baina ezta eskubide bat ere, interes orokorrak finantzatzeko formula bat da bai Estatuarentzat bai EAErentzat. Itunaren 140 urteetan zehar erakutsi da finantzatzeko sistema egoki eta erabilgarria dela mantentzen dute.

Etorkizunari begira, Ekonomia Itunak izan ditzakeen arriskuen inguruan galdetu zaie alderdiei. EAJk salatzen du balitekeela etorkizunean motibazio

politikoak egotea Ekonomia Itunaren eredia zalantzan jartzeko eta mugatzen saiatzeko. EAJk dio zentzu horretan, eskumenak babesteko ezinbestekoa dela kontu publikoak eta kaudimena zaintzea. Egibarren hitzetan “ez baditugu Europak ezarritako defizit, gastu araua eta zorpetze ratioak betetzen, Estatuak gure kontuak interbenitzeko aukera luke, eta beraz, automatikoki gure eskumenak mugatzen hasteko”.

Ekonomia Itunaren etorkizunari buruz EH Bildu eta Podemos eskuindar alderdiez beldur dira, hauen diskurtsoa indartu eta muturrera eramango dutelakoan. Biek azpimarratzen dute EAeko PPK izaera foralista daukala eta beti azaldu dela Ekonomia Itunaren alde, baina estatu mailako PPK ez duela ikuspuntu berdina. PSOerekin gauza berdina gertatzen dela diote, EAEn alde agertzen dira, baina estatu mailan alderdiaren diskurtsoa aldatu egiten da.

EH Bilduk dio sortu berri diren eskuin alderdiek, Ciudadanos eta VOX, diskurtso zentralista dutela eta berdintasunaren izenean Estatuaren baterakuntza bilatzen dutela.

Aitzitik, Podemosen egon dira kasuak non Itunak erasoak jaso dituen (La Vanguardia 2017). Hala ere, eta EAJrekin bat egiten, Itunaren inguruan pedagogia egiteak duen garrantzia azpimarratzen du, ezagutza falta honegatik solidaritate, aldekarreko arriskua eta mota honetako terminoak ezagutzen ez direlako. Gainera, Ekonomia Ituna ezin dela truke moduan erabiltzea saltzen du, Espainiar Gobernuak beharrak dituenen bakarrik hartzen da kontuan eta horrelako jarrerak ematen dizkiete argumentuak Ituna zalantzan jartzen dituztenei.

EAJk argi du Ekonomia Itunak izan ditzakeen arriskuak honen kudeaketa txar baten ondorioz Europak hartu ditzakeen erabakietatik eratorri daitekeela. EH Bildu eta Podemosek aldiz, Ciudadanos eta VOXetik haratagoko alderdiez gain beldur dira. PSOE eta PPren nazio mailako jarreraren aurrean kritiko agertzen dira. PPren aldetik Itunak ez duela inongo aldaketarik izango dio eta Ituna dagoen moduan mantenduko delakoan dago.

EAJk nabarmentzen du etorkizunera begira beharrezkoa izango dela ekonomia berrietara Ekonomia Itunaren eskumenakegokitzea. Gero eta gehiago, ekonomia eta fiskalitate munduan, erabakiak nazioarteko erakundeetan hartzen direla gogorarazten du. Europa mailan eta Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakunde (ELGA) mailan gai asko lantzen ari direla gogorarazten du. Eusko Jaurlaritzak talde hauetan landutako politikak inportatzen ari da. EAJren ustez euskal erakundeek ere gai izan behar dute mundu globalizatuan parte hartzeko, etorkizunera begira eskumenak garatzeko eta biharko fiskalitatea lantzen eta erabakitzen ari diren nazioarteko lan-talde horietan parte hartzeko. Ekonomia Ituna garatzen jarraitu nahi bada euskaldunen indargune bat izaten jarraitzeko, ezinbesteko izango dela nazioarteko begirada

barneratzea baiesten du Egiabarrek.

EH Bilduren aldetik, euskal egoera beste batzuekin alderatuta berezia dela nabarmentzen du. Ekonomia Itunaren alde finantzarioak euskal burujabetasunaren bidean aurrera egiteak ahalbidetzen du EH Bilduren ustez. Pinedok dio “guk Euskal Errepublika nahi badugu, Itunak ez zuen inolako zentzurik izango, baina daukagun bidea da eta gauden egoeran erabilgarria da”. EH Bildurentzat ez dauka zentzurik Eusko Jaurlaritzak urtero egin behar duen zorpetzean politika publikoak finantzatzeko edota politika sozialak egiteko, Estatuaren baimen bat eduki behar izatea.

Podemosek gardentasunera bideratuko luke Ekonomia Ituna. Beste alde batetik, zerbitzu sozialen bermerako bideratu behar litzatekeela dio. Ekonomia Itunak ematen duen autogobernu mailak euskal gizartearen bitza maila hobetzeko mekanismoak egitea ahalbidetzen duela dio.

PSE-EEK Itunaren erabilpen zintzo eta soziala egin behar dela dio. Eskaintzen dituen errekurtsioekin jendearen bizitza maila, zerbitzu publikoen kalitatea eta ekonomia hobetzeko erabili behar dela dio.

Laburbilduz, EAJK, Itunak Europar ematen ari diren aldaketekin bat egitea eta euskal erakundearen autonomia handiagoa izatea bilatzen du. EH Bilduk burujabetasunerantz bideratuko luke Ituna nahiz eta haien helburua independentzia den, eta hori lortuz gero, Itunak ez luke erabilpenik izango. Podemos eta PSE-EEK gardentasun eta erabilpen soziala bilatuko lukete. PPK Ituna dagoen moduan mantenduko delakoan dago.

6. ONDORIOAK

Ekonomia Itunak Eusko Legebiltzarrean ordezkartza duten alderdi guztien onespina du. 1878an jaio zen Ekonomia Ituna eta EAJrentzat arrazoï nagusia politikoa izan zen ekonomikoaren gainetik. Euskal eliteek begi onekin ikusi zuten eta horregatik ondo ezarri zen euskal gizartearen. PSE-EErentzako esanguratsua da beharrez ezarritako sistema bat hasiera batean kritikatu izan zena, EAJ eta ANVren aldetik batez ere, orain EAJ eta EH Bilduren aldarrikapen nagusietako bat izatea.

1981ean berrezarri zen berriro Ekonomia Ituna Lurralde Historiko guztietan. Berrezarpenaren ondorioz, EAEko erakundeek politika fiskal propioak egitea ahalbidetu zen. EAJ, Podemos eta PSE-EEK bat egiten dute Ekonomia Itunak euskal gizartearen garapenean lagundu duela azken hamarkadetan. EH Bilduk ere bat egiten du irakurketa horrekin, nahiz eta esan 1979ko erabakiak ezin direla oraingo ikuspuntu batetik berdin baloratu eta oraindik Itunaren aukerak ez direla guztiz garatu. Kupoaren % 6,24ko egozpen-indizeari dagokionez,

EH Bildu eta Podemos, egungo errealitatearekin bat ez datorrela diote eta berrikuspen baten alde agertzen dira, baina berrikuspen batek arazo politikoak ekarriko lituzkeela baiesten dute. Azken irakurketa honekin EAJ eta PSE-EEK bat egiten dute. Aldiz, PP da kalkulaturako % 6,24 horren alde agertzen den alderdi bakarra.

Azken Kupoaren zenbatekoa 2017an zehaztu zen eta negoziaketaren inguruan EAJ, alor kualitatibo eta kuantitatibotik, eta Podemos dira alde agertzen diren bi alderdiak. Hala ere, Podemosek, bosturteko legeak adosteko modua salatzen du, eta honekin bat datoz EH Bildu eta PSE-EE.

Ekonomia Itunak Foru Ogasunetik zergak biltzea eta zerga-sistema propioa izatea ahalbidetzen du. Autonomia fiskalaren inguruan, EAJrentzako zeharkako zergetan autonomia handiago izatea izango zen garrantzitsuena zeren eta zerga zuzenak hitzartuak daude. EH Bildu eta Podemosen aldetik zerga eredu desberdin bat aldarrikatzen dute, azken honek zergen aldarrikapen sozialak eginez zergen erabilpenekin.

Beste autonomia erkidego batzuek, Estatuarekin batera, hainbat salaketa egin dituzte Euskadiko presio fiskala beraienarekiko baino txikiago dela esanez. Honen inguruan EAJk argi du Ekonomia Ituna Europar Batasunaren irizpideekin eta harmonizazio printzipioekin bat etorri behar dela eta horregatik Estatuarekiko desberdintasun handiak egotea ezinezkoa dela. EH Bildu eta PSE-EEK bat egiten dute esanez euskal eta espainiar errealitateak ezberdinak direla, eta beraz, presio fiskala ezin dela berdina izan. Gainera, zerga autonomia izatea beharrezkoa dela baiesten dute. Podemosek zerga arloan erreforma bat egitea beharrezkoa ikusten du. PPK, modu batean, Espainia mailatik eratorriko aldarrikapenekin bat dator EAEn presio fiskala txikiago dela zehaztuz.

Ekonomia Ituna pribilegioa baden galderaren aurrean, EAJ, EH Bildu ezta Podemosen zuzen ere, Ekonomia Ituna ez da pribilegioa. Beste alde batetik, hiru alderdiak bat datoz alde bakoitzeko arriskua azpimarratzean. PPrentzako ordea ez da ez pribilegioa ezta eskubide bat ere, harentzako EAE eta Estatuaren interesak finantzatzeko modu bat da soilik.

Etorkizuneko arriskuen inguruan, EAJk Ekonomia Itunak izan ditzakeen arriskuak honen kudeaketa txar baten ondorioz Europak hartu ditzakeen erabakietatik eratorri daitekeela uste du. EH Bildu eta Podemosek aldiz, Ciudadanos eta VOXetik haratagoko alderdiez gain beldur dira, eta PSOE eta PPrentzako nazio mailako jarreraren aurrean kritiko agertzen dira. PPK, bere aldetik, Itunak ez duela inongo aldaketarik izango delakoan dago.

Azkenik, eta Ekonomia Ituna norantz bideratu beharko den harira, EAJk, Itunak Europar ematen ari diren aldagarekin bat egitea eta euskal erakundearen autonomia handiagoa izatea bilatzen du. EH Bilduk burujabetasunerantz

bideratuko luke Ituna. Are eta gehiago, Ekonomia Ituna tresna bat da autonomia fiskal eta finantzarioan, baina soilik tresna moduan hartu behar dela kontuan eta ez epemuga bezala dio. Podemos eta PSE-EEK gardentasun eta erabilpen sozialera bideratuko lukete.

7. BIBLIOGRAFIA

ALONSO OLEA, E.J., 1995. El concierto económico (1878-1937): orígenes y formación de un derecho histórico. Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública.

CAJAL VALERO, A. y CASTELLS ARTECHE, L., 2005. La negociación imposible (Cánovas y el fuerismo vasco en 1876). Hispania: Revista española de historia, vol. 65, no. 220, pp. 601-642.

DE LA GRANJA SAINZ, J.L., 2004. 1934: Un año decisivo en el País Vasco. Sancho El Sabio: Revista de cultura e investigación vasca, vol. 21, pp. 11-25. ISSN 1131-5350.

EL PLURAL, 2017. Barones del PP se suman a las críticas de Feijóo por el cupo vasco. El Plural. 27 noviembre 2017.

ENSUNZA ARRIEN, M., 2005. La opinión pública española sobre el concierto económico vasco (1952-2002). Bilbo: Ad Concordiam.

ERKOREKA GONZALEZ, M., 2018. Behar politikoen menpe egoteak ez dio mesede egiten Kontzertuari. Berria. 1 marzo 2018. S.I.: s.n.

ERKOREKA GONZALEZ, M., 2020. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako finantza publikoak eta Ekonomia Ituna 1929ko krisi ekonomikoaren garaian (1925-1936). Leioa: Universidad del País Vasco. Historia Contemporánea, 61.

ERKOREKA GONZALEZ, M., GARCÍA RABADÁN, J. y GARRO ALBAINA, J., 2022.

- Conocimiento y opinión del alumnado de la UPV/EHU sobre el Concierto Económico: resultados de la encuesta Ituna 2021. Ad Concordiam.

ESTEBAN, P., 2019. Ciudadanos arranca su programa con un nuevo 155 y mantiene la tijera al cupo vasco. El Confidencial. 16 abril 2019.

EUROPA PRESS, 2017. Rosa Díez tacha de atraco el acuerdo entre Gobierno y PNV sobre el Cupo vasco. Europa Press. 3 mayo 2017.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA, 2008. Ekonomia Ituna. Gasteiz:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

GARA, 2017. Elkarrekin Podemos plantea una reforma fiscal integral en la

CAV. Gara. Donostia, 30 octubre 2017.

GONZALEZ EGAÑA, A., 2017. El Gobierno Vasco ve incomprensible e inexplicable la abstención de EH Bildu a la votación sobre el Cupo. El Diario Vasco. Donostia, 21 noviembre 2017.

GONZÁLEZ IGLESIAS, S., MERINERO SIERRA, M.A. y URIEN ORTIZ, T., 2001. La opinión pública española sobre el concierto económico vasco (1876-1937). Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria = revista de pensamiento e historia, no. 2, pp. 94-99.

IBARZABAL ARAMBERRI, E., 2019. El logro del Estatuto de Gernika, una historia de éxito.

Deia. Bilbo, 19 octubre 2019.

LA VANGUARDIA, 2017. Rodríguez critica la prisa del PP por el cupo vasco. La Vanguardia. Bartzelona, 23 noviembre 2017.

LA VANGUARDIA, 2020. Iriarte recuerda a Azpiazu que fue EH Bildu el que pactó con PSOE y Podemos el aumento de la deuda. La Vanguardia. Bartzelona, 25 septiembre 2020.

MATA, M.Á., 2017. El origen del conflicto del Cupo: un acuerdo precipitado. El Diario Vasco. Donostia, 3 mayo 2017.

MURO, M. y ALONSO, M., 2019. PP y Ciudadanos se enzarzan por el concierto vasco. Libre Mercado. 21 marzo 2019.

ORMAZABAL, M., 2015. EH Bildu evita defender el Concierto por preferir la soberanía plena. El País. Madrid, 29 octubre 2015. ISSN 1134-6582.

ORUETA PÉREZ DE NENÍN, J., 1934. Fueros y autonomía: proceso del Estatuto Vasco. Donostia: Nueva Editorial.

PÉREZ NÚÑEZ, J., 1994. Autonomía y nacionalidad vasca. El debate sobre los Fueros vascos en el Senado de 1864. Studia Historica. Historia Contemporánea, vol. XII, pp. 109-128.

URIARTE SANTAMARINA, PL., 2014. El Concierto Económico: concepción, negociación y críticas. Iura Vasconiae, pp. 71-118.

URKULLU RENTERIA, I., 2017. Riesgo unilateral y solidaridad. El País. Madrid, 4 diciembre 2017.

8. ERANSKINAK

IZENA: JOSEBA	1. ABIZENA: EGIBAR	2 ABIZENA: ARTOLA
ALDERDI POLITIKOA: EAJ-PNV	KARGUA: BOZERAMAILEA	DATA: 2019-04-16

HISTORIA

Ekonomia Ituna Gerra Karlistak amaitzean ezarri zen. Gerra Zibila ostean deuseztatua geratu zen. Diktadurak amaitzean, berriro ere Gernikako Estatutuaren bozkatzearekin onetsi zen. Estatutu hau 1979an bozkatu zen % 60ko parte-hartzearekin. Parte-hartze horren % 90 alde agertu zen Estatutuarekiko. Zer nolako ikuspegia du EAJk Ekonomia Itunaren jaiotzari buruz?

2019an 40 urte betetzen dira Ekonomia Itunaren ezarpenaz. Egoera politiko-ekonomiakoa asko aldatu da 40 urte hauetan. Zer balorazio egiten du EAJk Ekonomia Itunak eduki duen bilakaerari buruz bere jaiotzetik gaur egun arte?

Aurki hauteskundeak ditugu udaletxeetatik hasita Europaraino. Alderdi batzuek Ekonomia Ituna kendu nahi dute, beste batzuk ordea, mantendu. Nola ikusten du EAJk Ekonomia Itunaren etorkizuna bai Espainian eta baita Europar Batasunean ere?

EAJk etorkizunean norantz bideratuko luke Ekonomia Ituna?

El Concierto Económico y el Convenio Económico suponen mucho. La razón fundamental en todas las negociaciones del Concierto Económico estuvo siempre planteada y fundamentada más en términos de razón política que en términos de razón económica. No quiero decir que las cuestiones técnicas y económicas no tuvieran su protagonismo. Pero, sobre todo, quiero subrayar la vertiente política del Concierto Económico, como algo más que un instrumento económico-fiscal. La primera mirada está centrada en los años 1876-1877-1878. [...] El fuero, básicamente, tenía tres elementos esenciales: el pase foral, la exención militar y la exención fiscal. Existe la obligación de transponer las normas legales, pero aquellas que se consideraban que contravenían el fuero, una vez traspuestas, simplemente no entraban en vigor. El pase foral consistía en aplicar el “se obedece, pero no se cumple”. [...] La historia del S. XIX es la historia que culmina con la elaboración de la teoría de los “buenos fueros”. ¿Qué se consideraba el fuero bueno? Se consideraba el fuero bueno a aquel que no tenía contenido político, pero que mantenía el contenido económico para contentar a las élites económicas en nuestra comunidad. Ese es el debate del siglo XIX. Se consolida este concepto de prescindir de los aspectos políticos del fuero. Es decir, de la capacidad de autogobierno, del carácter de constitucionalidad del fuero, pero se salvaguardan los aspectos de independencia fiscal y de autonomía en la administración interior de

los territorios forales. Este es el principal debate del siglo XIX: los fueros buenos. Y por supuesto, también los “vascos buenos”. Porque no podía haber fueros buenos sin vascos buenos. Y vascos buenos eran aquellos que defendían prescindir los aspectos políticos del fuero. Esta teoría de los fueros buenos desembocará en 1876 en el sacrificio de los contenidos políticos de los regímenes forales. “Esta cuestión de fueros” -decía- “es una cuestión de fuerza, que por la violencia se acabará por dirimir” y añadía la famosa frase “cuando la fuerza causa estado, la fuerza constituye el derecho” (Cánovas del Castillo). Su intención más profunda es eliminar todo vestigio de foralidad en favor de un estado con unas instituciones únicas. No obstante, lo que era una derogación total se termina con un acuerdo que Cánovas del Castillo llegó a definir como un planteamiento laxo en materia económica y de impuestos, pero con la eliminación de la capacidad de autogobierno político. Las razones que entonces se dieron para esa provisionalidad es que no tenían datos de esos territorios forales. Por lo tanto, no se podía abordar la tarea de establecer directamente la Hacienda Española en Euskadi. Y, en segundo lugar, que siendo territorios enormemente empobrecidos como consecuencia de las guerras podía perfectamente consentirse. No existe un autogobierno genuino si no existe autogobierno político con capacidad de decisión política. Es imposible el autogobierno sin la gestión propia del régimen económico, pero el régimen económico en sí mismo y por sí solo, no garantiza el autogobierno político. De este modo, podemos afirmar que hubo Concertado y Convenio desde 1878 hasta 1979-1980 en Navarra y Álava, y hasta 1937 en Gipuzkoa y Bizkaia. Pero en ninguno de los territorios vascos existió autogobierno político, salvo en el periodo del primer Gobierno de Euskadi del Lehendakari Agirre.

EKONOMIA ITUNA

[...] Kontzertu Ekonomikoa, nahitaez, erakunde bilakaera da, hori halaxe da, eta horrek balio du, bai zerga- alderdietarako, bai finantza-alderdietarako; baldin eta bera moldatzen ez bada propio dituen mekanismoen bitartez, orduan molde ihartu bihurtzen da. Araugintzaren aurreramendu honek ez digu ahantzarazi behar Kontzertu Ekonomikoaren beste alderdi askok (Kontzertua arau juridikoa den heinean) oraindik badirautela aldebikotasunaren ondorioak pairatzen, bai eta bera zuzenean edo zeharka ukitzen duen jurisdikzio-gatazkakortasunarenak eta, laburrean, haren kontsiderazio formalista hutsarenak. Horregatik, ez da ezkutatu behar, gaurkoz Kontzertu Ekonomikoa badela erakunde finantza-ahalmenduna eta aldebikoa, baina hasia da hauskortasun ezaugarri batzuk agertzen. [...] Lehenengoz, ez dago tresnarik bermatzeko Estatuak negoziatuko duela Kontzertu Ekonomikoaren alderdi osoen akordio bilakaera beharrezkoa denean, eta horrek oztopo garrantzitsua dakar. Bigarrenez, Kontzertu Ekonomikoa da interpretazio-arriskuek jotako erakundea, konstituzio-eredu ekonomikoaren eremuan, eta horrela geroago eta ugariago ageri dira epai batzuk, haien errepikatze interpretagarriez ia doktrina bihurtu direnak, zeintzuek balioa gutxitu baitiote Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriari

berari. Laburbilduz, Kontzertu Ekonomikoa berriztatzen ez bada haren finantza-
edukian, orduan arriskua dago bera ez izateko gogobetegarria ekonomia eta
finantzen eremu guztietan, baina horiei aurre egin behar die; bestela esanda,
Kontzertuak arriskua dakar ez eboluzionatzeko autogobernu ekonomikoaren
maila hobe eta handiagoetarantz. Gure historian eta lege zaharretan oinarritua
dago, beraz, gure eskubideak ditu oinarri. Orain arteko ongizate maila lortzeko
behar beharrezkoa izan da lurraldean ekonomia indartsu bat izatea, baina
politika publikoen ikuspegitik, Kontzertu Ekonomikoa ezinbestekoa bilakatu
da: alde batetik, aukera eman digulako propioak diren politika ekonomiko eta
fiskalak egitea, eta bestalde, modelook ezartzen duen exijentziagatik gestio
publikoan. Sarreraren gestioa (zerga bitartez) gure esku jartzen du baina baita
gastuaren gestio eta diziplina ere. Bi hauen arteko oreka bilatzea ezinbestekoa
eginez. Herri bezala erakutsi dugu herri-ekonomia politikak egiteko gaitasuna
eta baita kontu publikoen gestiorako erantzukizuna ere. Ez legoke beraz
arrazoirik Kontzertu Ekonomikoa garatzeko eta etorkizuneko beharretara
egokitzen ez jarraitzeko. Baliteke etorkizunean motibazio politikoak egotea
gure modelo dudana jartzeko eta mugatzen saiatzeko. Sentidu horretan,
ezinbestekoa da kontu publikoak eta solbentzia zaintzea gure eskumenak
babesteko. Adibidez, ez baditugu Europak ezarritako defizit, regla de gasto eta
zorpetze ratioak betetzen (2020an bete behar da zorrarena), Estatuak gure
kontuak interbenitzeko aukera luke eta beraz, automatikoki gure eskumenak
mugatzen hasteko. Beste era batera esanda, solbentzi eta gaitasun finantzarioa
galtzea da gure eskumenak arriskuan jartzeko modurik errazena. Bestalde,
herritarrak ez dituzte gure eskumenak ezagutzen. Eta ezagutzen ez den
zerbait ezin da baloratu, eta baloratzen ez dena ez da defenditzen. Kontzertu
Ekonomikoa bere lekua izan behar du hezkuntzan, bai DBH eta batxilergoan
eta baita unibertsitatean ere. Zaila izango da bestela gizartea aktibatzea gure
eskumenen defentsan. Eta gaur egun gauzak nola dauden ikusita, baliteke gure
eskumenen defentsa uste baino lehenago behar izatea. Etorkizunera begira
beharrezkoa izango da ekonomia berrietara, garai berrietara, gure eskumenak
egokitzea. Gero eta gehiago, ekonomia eta fiskalitate munduan, erabakiak
nazioarteko erakundeetan hartzen dira. Europa mailan eta OCDE (euskaraz
ELGA) mailan hari dira gai asko lantzen eta gu geu ere, talde hauetan landutako
politikak ari gera inportatzen (batez ere iruzurraren aurkako borrokan). Honek
esan nahi du, herri txikia izanik, gai izan behar dugula nazioarteko lan-talde
horietan parte hartu eta bertan hartzen diren erabakiak gure herriaren
beharretara egokitzeko. Mundu globalizatu honetan gai izan behar dugu
pertsonek eta erakundeak prestatzeko nazioarteko erakundeetan lan egiteko.
[...]. Euskal erakundeek ere gai izan behar dugu mundu globalizatu honetan
parte hartzeko, etorkizunera begira gure eskumenak garatzeko eta biharko
fiskalitatea lantzen eta erabakitzen ari diren nazioarteko lan-talde horietan
parte hartzeko. Kontzertu Ekonomikoa garatzen jarraitu nahi badugu gure
herriaren indargune bat izaten jarraitzeko, ezinbesteko izango da nazioarteko
begirada barneratzea.

EKONOMIA

Azken Kupoaren kantitatea 2017an negoziatu zen, 2021ean amaituko da baliotasuna. 11.620 milioi euroko kantitatea ezarri zen. Zein da EAJk duen iritzia onartu zen bosturtekoari buruz?

Hasteko, zehaztasun bat: 11.620 milioi eskuratu gabeko eskumenen balioaren % 6,24 da. Horri, ordea, konpentsazio eta doikuntza batzuk aplikatu behar zaizkio gero, Estatuak badituelako beste baliabide batzuk (Kupoaz gain) EAEk bere gain hartu gabeko eskumenak finantzatzeko: zerga ez itunduak, tributuak ez diren sarrerak, aurrekontuko defizita, eta zuzeneko zenbait zergaren sarrerak. Hala, 2017ko Kupo likidoa 1.305 milioikoa da. Kupo horri buruzko iritzia positiboa da. Ikuspegi kuantitatibotik, arrazoizko kopuruan finkatu delako 2017ko Kupo, aurreko urteetan izandako irizpide-desberdintasunak adostea lortu eta gero. Zenbateko horrek gaitasuna ematen dio EAeri bere gain hartu dituen eskumenak finantzatzeko. Ikuspegi kualitatibotik, Kupoaren akordioak bost urterako egonkortasuna ematen dielako EAEko erakundeei (Jaurlaritza, Aldundi eta udalei) beren aurrekontuak osatzerakoan. Kontuan izan behar da, herri bezala genuen arrisku finantzario handiena zela Kupoaren inguruan genuen desadostasuna. Itxitako akordioak garbi utzi du desadostasunaren izaerak bazuela arrazoa gure aldetik.

Egozte Indizea (Índice de imputación) % 6,24koa izango zela kalkulatu zen. 88/18 sententziak kalkulu honen azalpen guztiak argitaratzea behartu zituen Eusko Jaurlaritza eta Gobernu zentralari. Zein da EAJk egiten duen balorazioa gaur egungo % 6,24 Egozpen Indizeari buruz?

Egozte indizeak adierazi behar du zein den EAEk duen pisua Estatu osoko errentaren gainean. Aldagai hori aldakorra da, eta aldakortasun horren barruan % 6,24 arrazoizko balio bat dela esan liteke. Azken urteetan, dena dela, EAeren errentaren pisua % 6,24 baino gutxiago izan da 2000. urtetik aurrera, ondorengo taulan ikusi daiteken bezala:

Urtea	Guztira Estatu	EAE	%EAE
2000	646.250.000	40.711.377	6,30
2001	699.528.000	43.591.343	6,23
2002	749.288.000	46.167.184	6,16
2003	803.472.000	48.879.847	6,08
2004	861.420.000	52.130.831	6,05
2005	930.566.000	56.211.666	6,04
2006	1.007.974.000	60.937.706	6,05
2007	1.080.807.000	65.091.957	6,02

2008	1.116.225.000	67.698.141	6,06
2009	1.079.052.000	64.935.346	6,02
2010	1.080.935.000	65.680.491	6,08
2011	1.070.449.000	65.176.367	6,09
2012	1.039.815.000	63.818.464	6,14
2013	1.025.693.000	62.647.749	6,11
2014	1.037.820.000	63.895.891	6,16
2015	1.081.165.000	66.118.888	6,12
2016 (P)	1.118.743.000	68.391.984	6,11
2017 (A)	1.166.319.000	71.464.338	6,13

Iturria: INE. Contabilidad Regional de España – Base 2010. Precios corrientes. 2016(P): Estimación Provisional, 2017(A): Estimación Avance. Miles de euros.

EAJrentzat, gaur egun Estatuarekin hitzartuta dauden zergak nahikoak dira edo gehiago/gutxiago hitzartu beharko lirateke?

Egun, BEZeko inportazioak eta Aduanen zergak izan ezik, zerga guztiak daude hitzartuta. Are gehiago, zerga berri bat sortzen bada, Kontzertu Ekonomikoak zerga berri hori hitzartzeko betebeharra aurreikusten du. Kontua, beraz, ez da hainbeste zerga gehiago hitzartu ala ez, baizik eta hitzartuta dauden zerga horien guztien artean, araugintza eskumena hitzartu ala ez. Gaur egun zerga zuzenetan araugintza eskumen ia osoak ditugu. Zeharkako zergetan, ordea, araugintza eskumenak murriztuagoak dira. Araugintza eskumen horiek hitzartzea autonomiaren aldeko aurrera pausu handia izango litzateke.

Zein da EAJren iritzia Euskal Autonomia Erkidegoko presio fiskala Estatuaren presio fiskalaren antzekoa izan behar duenaren inguruan?

Gaur egun, Europako ekonomiak integratuta daude, eta antzeko parametroetan ibiltzen ari gara denak, gehiago edo gutxiago. Beraz, merkatuaren eta ekonomiaren logikatik ezingo litzateke ulertu goitik beherako desberdintasunak dituzten ereduak aplikatzea esparru desberdinetan. Bestalde, Kontzertu Ekonomikoan bertan jasota dago tributu-araudia sortzeko orduan eragiten den presio fiskala, Estatuan dagoenaren parekoa izan behar duela. Hala ere, eta presio fiskal orokorra antzekotasunean errespetatuz, posible da zerga-araudia EAEn eta bertako pertsonen eta ekonomiaren beharretara egokitzea eta moldatzea.

EZAUGARRIAK

Asko hitz egin da Ekonomia Ituna pribilegio edo eskubide bat dela eta. Modu inposatzailean jaio zen, baina gero Gernikako Estatu eta Espainiar Konstituzioa jasota geratzen da. EAJren iritziz, Ekonomia Ituna pribilegio edo eskubide bat da? Zergatik?

Ez da inongo pribilegioa. Kontzertuak arrisku handi bat onartzea suposatzen du eta erantzukizun handiz kudeatzea finantza publikoak. Izan ere, Kontzertuaren ezaugarri nagusia aldebakarreko arriskua da, bere emaitza hobea edo okerragoa izatearen onurak eta arriskuak alde bakarrak hartzen dituelako bere gain: EAEk, ez Estatuak. Hau da, zerga sistema EAEk Estatuak baino hobeto kudeatzen badu (zerga iruzurraren kontrako neurri eraginkorragoak hartuz, zerga kontzientzia herritarren artean zabalduz, kudeaketa zorrotzagoa eginez), hortik datozen onurak ez ditu EAEk Estatuarekin edota beste erkidego autonomoekin konpartitu beharko; baina aldiz, zerga-sistemaren emaitza EAEn Estatuan baino okerragoa baldin bada, (adibidez, krisi ekonomiko latz batek bereziki kaltetzen dituelako EAeko enpresak), hortik datozen kalteak ere beren gain hartu beharko dituzte EAeko erakundeek, ez baita kanpotik beste inor etorriko kalte hori konpentsatzera (adibidez, ez zaie Kupoaren faktura gutxituko). Transferitutako konpetentziak direla eta, beste autonomia batzuek diskriminatzaileak direla mantentzen dute. Osasuna, ogasuna, eta hezkuntza bezalako konpetentziak Eusko Jaurlaritzak kudeatzen ditu. Kontzertu Ekonomikoak ez ditu beste erkidego autonomoak diskriminatzen. Kontrara, Kontzertuaren ondorioz EAEk elkartasuna (solidaritatea) aplikatzen du beste erkidego autonomoen mesedetan. Kontzertuari esker EAEk bere eskumenak finantzatzen ditu bertako herritarrek eta enpresek ordaindutako tributuekin. Eta gainera, finantzaketa horren zati bat Estatuari bideratzen dio Kupoaren bitartez EAEk bere gain hartu gabeko eskumenak finantzatzeko. Are gehiago: Kontzertuaren eta Kupoaren bitartez, EAEk erkidego autonomoen arteko elkartasuna finantzatzen du, bi bidetatik. Batetik, EAEk finantzatzen dituen kargen artean dago Lurralde arteko Konpentsazio Funtsa (Fondo de Compensación Interterritorial). Funts hori da, hain zuzen ere, lurraldeen arteko desorekei erantzuteko eta elkartasun printzipioa gauzatu ahal izateko Espainiako Konstituzioak 158.2 artikuluan aurreikusten duen mekanismoa da. Bestetik, EAEk Kupoaren bitartez Estuari egiten dion ekarpena ez da kalkulatu biztanle kopuruaren arabera (per-cápita). Ekarpene hori errentaren arabera kalkulatu da, hau da, "gaitasun handiagoa duenak ekarpen handiago egin dezala" printzipioa aplikatuz. Teknikariek kalkulatu dute Kupoaren irizpide horren arabera kalkulatu behar den ekarpena eragiten duela, "per-cápita" irizpideekin kalkulatu baina.

IZENA: LEIRE	1. ABIZENA: PINEDO	2 ABIZENA: BUSTAMANTE
ALDERDI POLITIKOA: EH BILDU	KARGUA: PARLAMENTARIA	DATA: 2019-04-03

HISTORIA

Ekonomia Ituna Gerra Karlistak amaitzean ezarri zen. Gerra Zibila ostean deuseztatua geratu zen. Diktadurak amaitzean, berriro ere Gernikako Estatutuaren bozkatzearekin onetsi zen. Estatutu hau 1979an bozkatu zen % 60ko parte-hartzearekin. Parte-hartze horren % 90 alde agertu zen Estatutuarekiko. Zer nolako ikuspegia du EH Bilduk Ekonomia Itunaren jaiotzari buruz?

Kontzertu Ekonomikoaren inguruan ikusten duguna da, momentu hartan egin zena gaurko begiekin ikusita gauza bat da eta garai hartako begiekin ikusten denean beste bat. Egia da Kontzertu Ekonomiko berreskuratu zenean herri honentzako nolabaiteko burujabetzaren bidean aurreratzeko pausoak ematea izan zen. Garaikoetxea lehendakari ohiak honela azaltzen du behin eta berriz. Nolabait tresna bat izan zen autonomia fiskal eta finantzarioaren bidean aurrerapausoak emateko. Inork ez du esaten, eta guretzat agerikoa da, ez dela epemuga, bidea da. Gauden egoeran gaudela, gutxienez, gauza batzuetan gure eskumenak eta baliabideak kudeatzeko tresna baten moduan ikusten dugu, baina hori da dena gaurkoz. Tresna bat gure baliabideak kudeatzeko eta gutxienez gure eskumenetan erabakiak hartzeko. Nik beti esaten dut tresna bat dela, erabilgarria dena eta gaurko egunez erabilgarria dena, oraindik daukagun egoera daukagula.

2019an 40 urte betetzen dira Ekonomia Itunaren ezarpenaz. Egoera politiko-ekonomikoa asko aldatu da 40 urte hauetan. Zer balorazio egiten du EH Bilduk Ekonomia Itunak eduki duen bilakaerari buruz bere jaiotzetik gaur egun arte?

Kontzertu Ekonomikoan garrantzitsua izan zen bere epemuga kentzearena lortu zenean. Nik uste dut hori mugarri garrantzitsu bat izan dela Kontzertu Ekonomikoaren bilakaeran. Gero ikusten duguna da batzuetan muga baten moduan erabiltzen dela Kontzertu Ekonomikoa. Zenbait alderdik ikusten dute status quo-a mantentzeko tresna moduan eta guk bide bat egiteko ikusten dugu. Orduan Kontzertu Ekonomikoaren aukera guztiak garatu egin direla esaten dutenenean, gure uste apalean ez da horrela. Adibide bat jartzearren, Estatu mailan defizitaren inguruan zorpetzearen inguruan onartu zen lege madarikatu horren harira, azkenean Estatuak erabakitzen du erkidego autonomiek edukiko dituzten mugak, bai era batean bai bestean, automatikoki mugatzen ditu gure autonomia erkidegoa. Hori ez da horrela izan behar. Beste erkidegoei dagokie sistema de régimen común delakoa, aldebikotasun bat eduki beharko genuke eta horretan datza Kontzertu Ekonomikoa. [...] Guk uste dugu Batzorde Misto horretan eduki beharko genuela aukera gehiago gure egoera ekonomikoari egokitzen zaizkion defizita eta zorpetze mailak erabakitzeko. Uste dugu ez daukala zentzurik Estatuak erabakitzeak erkidegoek dutela defizit muga bat eta guk berdina edukitzea. Ez bakarrik guk badaukagulako Batzorde Misto bat non Gobernu espainolak batetik, eta erkidegoko administrazioak bestetik, Aldundiak barne, negoziatu behar duten. Ez bakarrik horregatik, baizik eta

Estatuak erabakitzen duenak, ez datorrelako bat gure egoera ekonomiko finantzarioarekin. Hau da, nik behin eta berriz Parlamentuan esaten dut daukagun zorpetze maila ez dela txikia, baina egia da beste lurralde batzuekin konparatzen baldin baduzu asko ere kontrolatuagoa daukagula. Gure ahalmen ekonomikoak direnak direla, badaukagu aukera beste politika batzuk egiteko. Ez daukana zentzua da Estatuak jartzea gastuaren muga erregelatzea. Ezin daitekeena izan guk gure zergak kudeatzeko aukera izatea, hainbat zergetan eskumenak izatea zergak definitzeko, hau da, diru iturriak definitzeko badaukagu. Baina aldiz, Estatuak gastua egin behar duenean, bere mugak ezartzen dizkigu. Guk uste dugu Kontzertuak berak, dagoen moduan, hori adosteko aukerak ematen digula. Adostasunak aldebikoa direla argi dago, baina nola da posible gure administrazioak eta Gobernu espainolak, Batzorde Mistoan adibidez, zorpetze muga adosten dutenean, beti Estatuak aurretik beste autonomia batzuei ezarritako muga berdina izatea. Hori da gure adosteko ahalmenaren emaitza? Ba guk uste dugu aukera bat dagoela bestelako bide batzuetatik jorrazteko, eta gainera, uste dugu oso garrantzitsua litzatekeela. Egia da horretan daudela hiru Aldundiak eta Jaurlaritza, baina uste dut garrantzitsua litzatekeela herri moduan defendatu behar ditugula gauzak, eta Kontzertu Ekonomikoa herri moduan defendatu behar dela. [...].

Aurki hauteskundeak ditugu udaletxeetatik hasita Europaraino. Alderdi batzuek Ekonomia Ituna kendu nahi dute, beste batzuk ordea, mantendu. Nola ikusten du EH Bilduk Ekonomia Itunaren etorkizuna bai Espainian eta baita Europar Batasunean ere?

Espainia mailan etorkizuna konplikatu xamarra dago politikoki. [...]. EAEko PPK orain arte bere izaera foralista hori erakutsi du eta Kontzertuaren inguruko jarrera baikorra. Egia da PPK tradizio foralista bat daukala, denok dakigu zer alderitarik datorren, hori horrela. Baina egia da, Estatu mailan badituela ahots batzuk eta Madriletik adibidez askotan entzuten ditugu. Nik oroitzen dut Madrileko presidentek esandakoak, Kontzertu Ekonomikoaren kontra oso erasokor agertu zena. PSOEn barnean hori ere gertatu da. Hemengoek defendatzen dute autogobernua eta diskurtsoa mantentzen dute gutxienez. Baina egia da Estatu mailan erasokorrak izan direla zenbait politikari sozialista. Ezagutza maila oso baxua dago Kontzertuaren inguruan, ez bakarrik Estatu mailan, hemen ere bai agerikoa da ez dela ezagutzen. [...]. Orduan oso erreza da ikuspuntua aldatzea eta desberdina den horren aurka joatea. [...] Ematen du zenbait alderdik Kontzertu Ekonomikoaren kontra oso agerikoak direla, berriki sortutako eskuindarreko alderdiak, nik uste dut berain ikuspuntua guztiz zentralista dela eta azken denbora honetan ere inperialista dela ematen du. Berdintasunaren izenean aldarriak eginez, unifikazioa bilatzen dute. Guretzako lehen esandako moduan, gauden egoera gaudela, tresna bat da. Egia da, gu independentistak garela eta estatu independente bat edukiko bagenu ez genukeela honelako mekanismorik beharko, guk izango genituzkeelako eskumen guztiak gure politikak egiteko. Europa mailan, kostata ere bai, badago

errekonozimendu bat Kontzertu Ekonomikoarena. Bereziak gara, baina badago zergen inguruan mota honetako egoerak Azoreak esaterako. [...] Ez dago arrisku bat Europatik Kontzertuaren aurka. Eraso Estatu mailatik dator, eta ez soilik Kontzertu Ekonomikoarekiko bakarrik, arazoa da desberdina den edozein gauza erasotzen ari direlako zenbait alderdi. Pluraltasuna, aniztasuna eta horrelako kontzeptuak ez dituzte barneratuan beren hiztegian. Batzuetan ere historiaren ezagupen oso txikia izatearen ondorioa da. [...] Bere jatorrian ez zen gauza positibo bat definizioz. [...] Lehen lurralde historiko bakoitzak bere Kontzertu propioa zeukan, orain EAEko Kontzertu bakarra daukagu, badauzka bere berezitasunak. [...].

EH Bilduk etorkizunean norantz bideratuko luke Ekonomia Ituna?

Gure egoera beste batzuekin alderatuta berezia da. Guk orain arte Kontzertu Ekonomikoaren tratamenduan behin eta berriz azaldu dugu badaudela hainbat zerga oraindik biltzeko eskumena, baina ez legedia egiteko eskumena, BEZaren kasua esaterako. BEZ oso garrantzitsua da guretzat, denok eguneroko ordaintzen dugun zerga bat da eta beti aldarrikatu dugu Kontzertu Ekonomikoaren bidez hona ekarri beharko zela. Egia da badaudela hor Europatik hainbat kontu medio. Kontzertu Ekonomikoa alde finantzarioan badago bidea aurrera egiteko eta badago bidea gure burujabetasunaren bidean aurrera egiteko. Modu errazean jendeak ulertuko luke gure egoera ekonomikoari erantzuten dion baldintzenetan egitea politika finantzarioa. Ez dauka zentzurik Jaurlaritzak egin behar duen zorpetzean urtero politika publikoak finantzatzeko, politika sozialak egiteko, Estatuaren baimen bat eduki behar izatea. Guk uste dugu hor guztian badagoela burujabetzaren aukera Kontzertua Ekonomikoaren barruan aurrera egiteko. Guk Euskal Errepublika nahi badugu, Kontzertu Ekonomikoak momentu horretan ez zuen inolako zentzurik izango. Hori da daukagun egoera eta bidea. Kontzertu Ekonomikoa gauden egoera gaudela erabilgarria da. [...]

EKONOMIA

Azken Kupoaren kantitatea 2017an negoziatu zen, 2021ean amaituko da baliotasuna. 11.620 milioi euroko kantitatea ezarri zen. Zein da EH Bilduk duen iritzia onartu zen bosturtekoari buruz?

Kupoa azkenean Kontzertu Ekonomikoaren gauzatze bat da. Estatuarekin daukagun erlazioen gauzatzea da azken finenean. Kupoaren bidez ordaintzen duguna guk gure gain ez ditugun eta Estatuak bere gain dituen eskumenak dira. Nolabait Kupoa Estatuko aurrekontuen araberakoa da. Askotan entzuten dituzu Estatuko politikari batzuk eta ematen du Kupoa dela Estatuak guri ematen diguna. Guk egiten dugu ordainketa Estuari. Azkeneko Kupoaren bozketaren inguruan, aspaldi egin beharreko lege berriztatzea zela, 2007an onartu zen azkenekoa eta iraupena 2011ra artekoa zen eta azkenean 2017ra arte egon gara Kupoa gora eta Kupoa behera. Dirua bueltaka egon da, zeren

eta hemen kalkulatzen zituzten gure instituzioek Kupo bat eta Estatuak beste Kupo bat kalkulatzen zuen. [...] Azkenean Kupoaren legearen adostasuna lortu zen betiko moduan, Madrileko gobernuak behar izan dutenean zenbait bozka, horretarako hor egon da EAJ botoak emateko. Hori ere Kontzertu Ekonomikoaren inguruan dagoen gabezi bat da, ezin dena izan Kontzertua eta Kupoaren berritzea bakarrik egitea Madrileko gobernuak beharrak dituenean. Alegia, Madrileko gobernuak ez daukanean gehiengo absolutua edo horrelako zerbait. Hori oso gabezi garrantzitsu bat da. Ez daukanak zentzurik da Kupoaren zenbatekoa ibiltzea bueltaka zazpi urte luzez ez delako adostasunik lortu. Gainera aurreko Kupo adostu zen eta urtebetera desadostasunak hasi ziren. Hor ere transferentziak egon dira urte horietan eta transferentzia horiek baloratu behar dira. Guk pentsatzen dugu hori ez dela modua Kupoaren inguruko akordioak lortzeko. Ezin daitekeena izan da Madrilek beharrak dituenean horrelako adostasunak lortzea. Horregatik oso kritikoak izan ginen adostasun horrekin, ez Kupoaren legearengatik. Guk esan genuen oso beharrezkoa zela Kupoaren inguruko legea adostea, are eta gehiago, hainbat urteetan egondako desadostasun horiek konpontzea baizik. Baina oso itsusia da bakarrik adostasunak lortzea Madrilek beharrak dituenean eta hori nolabait errespetu falta bat da legearekiko. Kontzertuarekiko errespetu falta bat da ere. Gainera momentu hartan PP zen Madrileko gobernuan zegoena. Gero esaten dute Kontzertu Ekonomikoa defendatzen dutela, baina ikusi ditugu ikusi beharrekoak. Azkenean ikusten duzu bai defendatzen dutela, baina batzuetan ematen du nahi dutela Kontzertu Ekonomikoa egotea bitrina baten barruan bisitei erakusteko eta ez egiteko zarata gehiegirik. Hori gertatu izan da Kupoarekin ere. Azkenean hainbat urteetan dirua gora eta behera. [...] Hori ez da bidea, hori errespetu falta bat da gure eskumenei eta gure burujabetza ekonomiko eta politikoari.

Egozte Indizea (Índice de imputación) % 6,24koa izango zela kalkulatu zen. 88/18 sententziak kalkulu honen azalpen guztiak argitaratzea behartu zituen Eusko Jaurlaritza eta Gobernu zentralari. Zein da EH Bilduk egiten duen balorazioa gaur egungo % 6,24 Egozpen Indizeari buruz?

Azkenean % 6,24 hori finkatu zen 80ko hamarkadan. Momentu horretan Pedro Luis Uriarte sailburua zen eta Carlos Garaikoetxea lehendakaria zen Nik askotan entzun diet nola heldu ziren zenbateko horretara. Gure ekonomiaren (BPG) pisua omen zen, , baina bueno hor gauza asko zeuden atzean. Egia da BPG kalkulatzen hasten baldin bagara, gure pisua ez dela hori. Biztanleriaren kopuruaren inguruan askotan eztabaidan jarri da. Estatuan ez daude oso eroso horrelako eztabaida bat irekitzearekin, beste eztabaida batzuk irekiko direlakoan. Hemengo administrazioek batzuetan aldareak egin dituztenean Kupoaren inguruan asko ordaintzen dugula, horrelako konparaketak azaldu behar dira. Egia da 80ko hamarkadatik hona egoera ekonomikoa aldatu dela, errealitatea guztiz aldatu dela, gure herriaren pisu ekonomikoa aldatu dela, populazioarena ere aldatu dela, baina ez bakarrik hori. Estatuak berak ere

aldaketa oso sakonak bizi izan ditu, eta are gehiago, gobernu zentralaren aurrekontuetan aldaketak nabariak egon dira. Europaren gaia ere kontuan izan behar da. Momentu hartan ez ginen Europako kide, orain Estatuak Europar Batasuneko kide da. Horrek ere pisua dauka guzti honetan. Nik uste dut ez dugula gehiegi sakondu horretan. Oso zaia da zer indize hartu behar diren erabakitzea. Azkenean ez da indize bakarra. Kupoaren ordainketa Estatuaren aurrekontuaren arabera da eta ez dauka zerikusirik gure maila ekonomikoarekin zuzenean. Berdin dio hemen diru bilketa ona edo txarra bada, hori ere beti esaten den riesgo unilateral-aren adierazgarria da. Ez da erreza, horregatik % 6,24a finkatu zenetik ez da inolako aldaketarik egon.

EH Bildurentzat, gaur egun Estatuarekin hitzartuta dauden zergak nahikoak dira edo gehiago/gutxiago hitzartu beharko lirateke?

Nik uste dut badagoela bidea gehiago hitzartzeko, BEZ esaterako. Azkenean guk autonomia edo burujabetza finantzario eta fiskala aldarrikatzen dugunez, guretzako zerga guztiak izan beharko lirateke gure eskuetan. Azkenean guk daukagun gure herriaren ikuspuntuagatik, ez da bakarrik independentistak garelako, baizik eta egoera ekonomikoari begiratzen badiozu ez da egoera berdina hemen daukaguna edo dagoena Madril batean esaterako. Egoera ekonomiko bakoitzari erantzuna emateko zergak ezberdinak eta zerga modelo ezberdinak izan behar dira. Gainera, guk beste zerga eredu bat aldarrikatzen dugu, uste dugulako badagoela bidea zerga eredu benetan sozialago bat egiteko, benetan progresiboago bat egiteko, eta gure herriak behar dituen beharrei erantzuteko. Geroz eta zerga gehiago egiteko eta diseinatzeko aukera izan, hobeto. Dauzkagun eskumenak ere nolabaiteko berdintasun izan behar dituzte Estatuako zerga nagusiekin eta hori ere azaldu behar zaio jendeari. Batzuetan ere horrelakoak esaten dira. Zenbait pertsonak nahi dute kanpoan pentsatzea guk hemen daukagula paradisu fiskal bat, eta ez da hori. Badauzkagu eskumen batzuk, eta azaldu behar da eta balioan jarri behar da, baina gure eskumenek ere muga batzuk dituzte. Nik uste dut BEZ oso garrantzitsua dela politika publikoak egiteko. [...]

Zein da EH Bilduren iritzia Euskal Autonomia Erkidegoko presio fiskala Estatuaren presio fiskalaren antzekoa izan behar duenaren inguruan?

Agerikoa da gure egoera ekonomiko eta soziala desberdina dela, eta hortaz, gure ehun ekonomiko desberdina dela. Guk nahi dugun herria eraikitzeke beste zerga batzuk behar ditugu eta horrek dakar presio fiskala desberdina izatea. Ezkerretik balioan jarri behar dugu publikoa denona dela, eta ondo kudeatu behar dela. Gobernuetatik oso garrantzitsua da oso ondo kudeatzea, segikorrak izatea diruaren gestioarekin, guztiona delako. Azkenean zergek honekin erlazio zuzena daukate. Presio fiskala handiago izan behar da zerbitzu publiko hobeak izateko. [...]

EZAUGARRIAK

Asko hitz egin da Ekonomia Ituna pribilegio edo eskubide bat dela eta. Modu inposatzailean jaio zen, baina gero Gernikako Estatutu eta Espainiar Konstituzioa jasota geratzen da. EH Bilduren iritziz, Ekonomia Ituna pribilegio edo eskubide bat da? Zergatik?

Ez da pribilegio bat inola ere ez. Nola izango da pribilegio bat guda bat galdu ostean sortu zen tresna bat. Egia da eboluzionatu duela, aldatu dela, baina esentzian hortik dator. Eskubide bat da eta horrela aldarrikatu behar da. Estatuan gauden egoeran gaudela eskubide bat da. Gure lurralde historikoek bazeukaten ahalmen batzuk aurretik gure zergak kudeatzeko eta hortik eratortzen da Kontzertu Ekonomikoa argi eta garbi. Herri moduan daukagun eskubide bat da eta gaur egun daukagun egoera ikusita defendatu behar dugula agerikoa da. Nola izan daiteke pribilegio bat zuk ordaintzen duzun zenbatekoa ez daukanean inongo erlaziorik zure egoera ekonomikoarekin, zuk bildutako zergekin, edo zure herrian gertatutako gauzekin. [...] Hemen langabezi tasa handia baduzu Estatuak berdin kobratuko dizu kobratu beharrekoak Kupoan. Kupo zehazten delako Estatuak aurrekontuen zenbatekoaren arabera eta guk herri moduan ez daukagu Estatuak aurrekontuak finkatzeko aukerarik. Hor daude Estatuak egiten dituen politika guztiak zorpetzea barne, nahiz eta batzuk esan ez dagoela zorpetzea sartuta. Hor dago armada, erregearen etxea eta hainbat gauza guri inork ez dizkigunak galdetu. OTAN bozkatu zenean, EAEn kontrako bozka irabazi zuen eta hala ere Espainiako armadaren % 6,24 ordaintzen dugu. Beraz pribilegio bat ez da, eskubide bat da.

Galdetutakoaz gain zerbait esatea gustatuko litzaizuke?

Kontzertuaren inguruan dagoen ezagutza oso eskasa da eta oso politizatua dago. Ematen du bakarrik izaera abertzalea eta independentista dugunok egon gaitzkeela alde. Batzuk aldarrikatzen dute Gernikako Estatutua, baina aldi berean Kontzertu Ekonomikoari nolabaiteko gaizki begirada bat ematen diote. Defendatu behar dugu gauden egoeran gaudela, hori delako daukagun tresna gure gauzak egiteko, baina argi izanda gura azken helburu beste bat dela. [...]

IZENA: JULEN	1. ABIZENA: BOLLAIN	2 ABIZENA: URBIETA
ALDERDI POLITIKOA: ELKARREKIN PODEMOS	KARGUA: PARLAMENTARIA	DATA: 2019-04-09

HISTORIA

Ekonomia Ituna Gerra Karlistak amaitzean ezarri zen. Gerra Zibila ostean deuseztatua geratu zen. Diktadura amaitzean, berriro ere Gernikako Estatutuaren

bozkatzearekin onetsi zen. Estatutu hau 1979an bozkatu zen % 60ko parte-hartzearekin. Parte-hartze horren % 90 alde agertu zen Estatutuarekiko. Zer nolako ikuspegia du Elkarrekin Podemosek Ekonomia Itunaren jaiotzari buruz?

Kontzertu Ekonomikoa azkenean Foruetatik zetorren pixka bat gure izaera berezi hau herri moduan mantentzeko egin zen. Guretzat oso erreminta inportantea da, gure autonomia mantentzeko eta gure autonomian sakontzeko. Zentzu honetan oso inportantea izan zen Estatutuan jaso zuen babesa Bueno, Estatutuak 40 urte ditu, eta ez da osorik bete, gauza batzuk betetzeke daude, baina zentzu horretan Kontzertu Ekonomikoa hor argi eta garbi agertzen da. Euskal biztanleriaren zati alde oso handi baten babesa dauka eta bakarrik, nik dakidanez behintzat, gaur egun UPyD eta Ciudadanos bakarrik agertu dira aurka, baina ikusi ahal da UPyD eta Ciudadanosek Euskadin duten biztanleriaren babesa zenbatekoa den. Beraz, Kontzertu Ekonomikoa gure herriaren erreminta gisa ezagutzen da, gure autogobernuaren parte handi baten erreminta gisa, eta Euskal Legebiltzarrean gauden alderdi guztien babesa badauka. Nik uste babes hori oso inportantea dela eta mantendu egin behar dela. Zuk ibilbidea kontatu duzun moduan, frankismoan kendu zen Gipuzkoa eta Bizkaian eta mantendu zen Araban eta Nafarroan. Ikusten da nola zigor moduan erabili zen bai Gipuzkoa bai Bizkaian.

2019an 40 urte betetzen dira Ekonomia Itunaren ezarpenaz. Egoera politiko-ekonomiakoa asko aldatu da 40 urte hauetan. Zer balorazio egiten du Elkarrekin Podemosek Ekonomia Itunak eduki duen bilakaerari buruz bere jaiotzetik gaur egun arte?

Hasi zenetik, Karlistadak eta gero, Kontzertuaren zer-nolakoak ere aldatu egin dira. Lehen adibidez, Estatuak pentsatzen zuen Diputazioak kantitate bat jasoko zutela, eta horren baitan kalkulaten zen. Orain, Estatuak transferitu ez dituen eskumenean %6,24a da, baina kalkulu hau ere zaharra da eta ez da aldatu. Azken finean egoera berrietara aldatu behar da eta gauzak ezin dira ikusi ez orain dela 40 urte bezala, ezta orain dela 140 urte bezala.

Aurki hauteskundeak ditugu udaletxeetatik hasita Europaraino. Alderdi batzuek Ekonomia Ituna kendu nahi dute, beste batzuk ordea, mantendu. Nola ikusten du Elkarrekin Podemosek Ekonomia Itunaren etorkizuna bai Espainian eta baita Europar Batasunean ere?

